

APELLÁNIZ / APINAIZ

– ARABA / ÁLAVA –

Izkiko Parke Naturalaren babespean dago Apinaiz. Arabako Mendien atean, Azazeta mendatearen oinarrian, eta Laminoria haranarekin mendebaldetik muga egiten. Urrunetik ikusten da herriaren antolamendu banatua, hiru auzotan argi eta garbi bereizita dago eta: Bengara, Lespara eta Goikara. Gasteiz 25 km-ra du, eta handik iristeko, A-132 errepidea hartu beharra dago lehenengo, Lizarrarantz. Mendatea jaitsi ondoren, ezkerretara, Birgaragoienara joateko sarrera hartu gero, eta, ondoren, alde berean, apur bat aurrerago, A-4123 errepiderako irteera. Hortik aurrera jarraituta, Apinaizera helduko gara.

Rejako agirian ageri da Apinaiz, *Apinganiz* izenaz. Han zehazten denez, hesi bat ematen zion ordainetan Donemiliaga Kukulako monasterioari, Harrahiako barrutiaren barruan. Jeronimo Aznarrek 1257an egindako elizen zerrendan, *Apillaniz* azaltzen da aipatuta. Gaur egun, Arraia-Maeztuko udalerriaren barruan dago, eta ehun eta sei bizilagun ditu erroldan izena emanda.

Al abrigo del Parque Natural de Izki, Apellániz es una pequeña localidad situada en el comienzo de la zona de la Montaña Alavesa, casi en la base del puerto de Azáceta, y en el límite occidental del valle de Laminoria. Desde la lejanía se aprecia una división del casco urbano, ya que el pueblo se distribuye en tres barrios: Bengara, Lespara y Goikara. Desde Vitoria, situada a poco más de 25 km de distancia, hay que tomar la carretera A-132 hacia Estella. Una vez bajado el puerto, se encuentra la entrada a Vírjala Mayor, a la izquierda, y en ese mismo lado, un poco más adelante, está la salida por la carretera A-4123, que desemboca en el lugar de Apellániz.

Este pueblo ya aparece en el documento de La Reja con la denominación de *Apinganiz*, contribuyendo al monasterio de San Millán de la Cogolla con una reja, dentro del Alfoz de Harrahia. En la relación de iglesias del obispo Jerónimo Aznar en 1257, es llamado *Apillaniz*. Hoy en día pertenece al municipio de Arraia-Maeztu y en su censo figuran ciento seis habitantes.

Jasokundeko Andre Maria eliza *Iglesia de Nuestra Señora de la Asunción*

APINAIZKO PARROKIA beheko auzoan dago, errepidea amaitzen den lekuan, eta plaza eder bat du hegoaldera. Eraikin gotikoa da, oinplanoa gurutze latindarra da, eta nabea ganga izartuz estalita du. Sakristia XVIII. mendekoa da, eta ataria, XVII. mendearen hasierakoa. Atari horretan gordeta dago, babesean, gotikorako trantsizioa egiten duen portada erromanikoa; XIII. mendearen erdialdetik aurrerakoa izan daiteke. Lau arku eta deskarga-arku zorrotz bat ditu. Baina desitxuratuta dago, ataria erutzen duen gangaren nerbioetako bat bertara lotuta dago eta; ondorioz, ezkerreko aldean arkiboltak zatituta daude. Hormaren gainerantz luzatuta dagoenez, eta ataria egin zenez, ezkerreko kanpoko saihetsa galdu egin da. Ez, ordea, eskuinekoa, deskarga-arkuaren zatia ez badago ere, gainerrakoak han jarraitzen du. Arku guztiak dira baketoidunak, oso sinpleak. Dena dela, barruko arkiboltaren hasieran,

LA PARROQUIA DE APELLÁNIZ se sitúa en el barrio de abajo, donde desemboca la carretera, con una hermosa plaza abierta en su lado sur. Se trata de un edificio gótico, con planta de cruz latina y nave cubierta de bóvedas estrelladas, cuya sacristía data del siglo XVIII y el pórtico de comienzos del XVII. Bajo el pórtico está cobijada la portada románica de transición al gótico, fechable en el siglo XIII avanzado. Consta de cuatro arcos y sobreaarco apuntados, aunque se halla desfigurada por estar uno de los nervios de la bóveda que cubre el pórtico clavado en ella, por lo que en el lado izquierdo las arquivoltas se parten. Al estar avanzada sobre el muro y haber construido el pórtico, el flanco exterior del lado izquierdo se ha perdido; no así el derecho, que permanece, aunque sí ha desaparecido el tramo de sobreaarco. Todos los arcos son baquetonados, muy simples, aunque en el arranque de la arquivolta inte-



Portada

Portada



Portadako kapitelak

Capiteles de la portada

eskuineko aldean, besanteen ilara bat ageri da, zenbat eta gorago, orduan eta ezabatuago. Moldura moduan goitik beherako hiru zerrenda dituen inposta batean oinarrituta dago arkuen multzoa; eta zerrenda horien azpian, leihoe-tako zangoek zutabe-erdi bat dute molduratzat, arkiboltaren jaitsierarekin bat egiten duten erpinetan. Kapitela berdinak dira guztiak: landare-motibodunak, kiribildura sinplekoak, batzuetan hosto txikiekin apainduta. Guztiak berdinak, barruko eskuineko aldetik hasita bigarrena izan ezik; gizaki baten aurpegi laua du, zahartuta, eta begi handiak nabarmen ikusten zaizkio. Harroinak ere sinpleak dira, eta multzo osoa podium baten gainean altxatzen dute.

Barrualdean, eraikina gotikoa bada ere, gangetako zurkaitzetan erromanikoaren arrastoa igartzen da; maskaroren bat, orri bertikalak eta lau orrikoak ageri dira. Hala ere, erromanikoa baino geroagoko mendekoak izango ziren.

Iparreko horman, harburu lisoen ilara bat dago, oraingo eliza gotikoak atzean utzi zuen aldi erromaniko batekoak, ziur aski. Eta, hain zuzen ere, eliza gotiko hau altxatzeko, portada hori zeukan eraikin erromanikoa erabiliko zuten.

Testua eta argazkiak: REA

rior, en el lado derecho, se aprecia una hilera de besantes, que se borra según asciende. El conjunto de arcos se apoya en una imposta moldurada por tres franjas horizontales descendentes, y, bajo ella, las jambas se molduran con una semicolumna en los ángulos coincidentes con la caída de la arquivolta. Los capiteles son todos iguales, de vegetales con volutas muy simples, en ocasiones rematadas por pequeñas hojas, salvo la segunda desde dentro del lado derecho, que muestra un rostro humano plano, deteriorado, del que se aprecian los ojos grandes. Las basas son simples, elevando el conjunto sobre un podio.

En el interior, aunque la construcción es gótica, se aprecia la huella románica en los apeos de las bóvedas, con algún mascarón, hojas verticales y cuadrifolios, que pertenecerían, aún así, a una época posterior a los siglos románicos.

En el muro norte también se conserva una hilera de canes lisos, pertenecientes, posiblemente, a una etapa románica superada por la actual iglesia gótica, que podría haber encontrado una base para su construcción en el edificio románico al que pertenecía la portada.

Texto y fotos: REA

Bibliografía / Bibliografía

LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, pp. 26-27; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1982, pp. 290-291; VEGAS ARAMBURU, J. I., 1985, pp. 129-133.